

# P.PREV EUSKADIKO PENTSIOAK HORIZONTE 1

## 2024KO LEHEN SEIHILEKO TXOSTENA

Prezioen igoera kontrolatzeko 2022an eta 2023an Banku Zentralik gehienek egindako tasa-igoerek funtzionatu egin dute. Munduko inflazio-tasak hurbilago daude, jada, Banku Zentralen helburuetatik, nahiz eta prezioen azken datuak ez diren espero bezainbat moderatzen ari, ekonomien erresilientzia-ahalmenaren ondorioz. Hazkunde ekonomikoko aurreikuspenak, bai ekonomia garatuentzat eta bai garatzeko bidean daudenentzat, gorantz ari dira berrikusten, agerian jarriz horien ekonomia sendoa, tasak altuak izan arren; izan ere, finantzaketa-baldintzak asko tenkatu dira azken 2 urteotan.

Zenbait ekonomiatan interes-tasak hasi dira jaisten dagoeneko, baina beherakadak ez dira 2023. urtearen amaieran espero zirenak bezain handiak. Hala, ekainaren hasieran, Europako Banku Zentralak % 4,50etik % 4,25era jaitsi du tasa objektiboa, besteak beste Suitzako eta Suediako bankuen pausoei jarraituz. Erreserba Federalak ez du oraindik tasen maila aldatu, eta % 5,25-5,50 inguruan jarraitzen dute.

Europako Diru Batasuneko gobernuak jaulkitako bonuen tasek izandako gorakada, oinarritzko 40 punturen ingurukoa, oztopatzen ari da bonu horien errentagarritasuna; urtean, errentagarritasun negatiboa izan dute, eta 5 urterako bonuek % 0,50 inguru galdu dute. Espainiako Altxorraren zorraren kasuan, tasen igoera zertxobait txikiagoa da, eta 5 urterako bonuek ez dute ia galerarik izan. Nahiz eta Erreserba Federalak tasak aldatu ez eta ziklo ekonomikoa indartsuagoa izan, AEBko Altxorraren bonuetako BETen gorakada Europan baino txikiagoa da, oinarritzko 30 puntu ingurukoa 5 eta 10 urterako bonuetan. Hori dela eta, errentagarritasun handiagoa emateaz gain, seihilekoaren amaieran zorrak zertxobait irabaztea eragin dute bonu horiek. Dena den, epe luzerako bonuak eremu negatiboan daude oraindik urtean.

Kalitaterik handieneko eurotako errenta finko korporatiboak portaera ona izan du urtearen lehen zatian, eta % 0,54 errebalorizatu da seihilekoan. Gobernu-zorrekiko diferentziala oinarritzko 18 puntu txikitu da, eta, hortaz, bere batezbesteko historikoaren azpitik dago. Errendimendu handiko eurotako zor korporatiboa % 2,83 inguru errebalorizatu da seihilekoan, eta eurotako gainerako zor-merkatuena baino askoz ere portaera hobea izan du. Arrazoiak: errendimendu handiko zorraren eta bonu subiranoen arteko diferentzialak oinarritzko 22 puntu inguru jarraitu du txikitzen.

Errenta aldakorrekiko merkatuak irabazi handiak izan ditu azken 6 hilabeteetan, % 8tik gorakoak Eurogunean eta % 14tik gorakoak AEBn, eta, horren ondorioz, AEBko burtsak maximo historikoak lortu ditu. Erresuma Batuak eta garatzeko bidean dauden herrialdeek ere % 10 inguruko irabaziak izan dituzte. Hori guztia gertatu da nahiz eta 2024rako enpresen mozkinen hazkundeak beherantz berrikusi diren mundu osoan, % 10etik % 8ra, konpainia teknologikoetan izan ezik.

## PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILEAK

. Bazkide babesle-sustatzailea, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito  
. Gordailuzaina, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito

## PLANAREN BILAKAERA

ALDIA	ERRENTAG. GARBIA
1 Seihilekoa	-0,39
2024ko metatua	-0,39
2023 Urtea	2,88
Azken 3 Urteak	--
Azken 5 Urteak	--

## DATU OROKORRAK

	EGUNGO SEIHILEKOA	AURREKO SEIHILEKOA
Ondarea	44.118.358,82	44.751.340,43
Partaidetza kopurua	7.169.190,83	7.244.015,75
Likidazio-balioa partaidetzagatik	6,153883	6,177698
	EHUNEKOA	KALKULO OINARRIA
Administrazio gastuak	0,48%	Ondarea
Bitarteko gastuak	0,00%	Ondarea
Errotazio ratioa	0,42%	Ondarea

## MERKATU ARRISKUA

Errenta Finkoaren Iraupena	2,51
Errenta Aldakorraren %	--

## ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

BALIOAREN DESKRIBAPENA	24/06/30eko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
<b>ERRENTA FINKOA</b>	<b>43.913.275,00</b>	<b>100,00%</b>
BO. ESTADO ESPAÑA 0% 270131	38.551.233,00	87,79%
BO. ESTADO ESPAÑA 0% 270131	4.807.348,00	10,95%

BALIOAREN DESKRIBAPENA	24/06/30eko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
BO. ESTADO ESPAÑA 0% 270131	554.694,00	1,26%
<b>ZORROA GUZTIRA</b>	<b>43.913.275,00</b>	<b>100,00%</b>